



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN PROTOKOLOA PRESONDEGIETAN DIREN PERTSONEI BURUZKOA

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2004.eko urriaren 28an (2005-9-16ko 177 zenbakiko EHAA) aho batez onarturikoa, Auzitegi Konstituzionalaren 2011ko abenduaren 19ko 206/2011 epaiak (2012 -1-11ko 9. zenbakiko EBO) berretsita eta UPV/EHUko gobernu kontseiluak 2013ko uztailaren 18an aho batez hartutako erabakiak eguneratuta.

**Eranskina UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartua, 2025eko maiatzaren 22ko saioan.*

AURKIBIDEA

	Orr.
1. Artikulua. Arauzko oinarriak.....	3
2. Artikulua. Protokoloaren onuradunak	3
3. Artikulua. Titulazioen eskaintza	4
4. Artikulua. Gradu eta Graduondora sartzeko betebeharrak.....	4
5. Artikulua. Ikasketa desberdinak aldi berean egitea	5
6. Artikulua. Lehenengo mailatik gorako mailetan matrikulatzea	5
7. Artikulua. Irakaskuntz plangintza eta ebaluazioa	5
8. Artikulua. Iraute arauak.....	6
9. Artikulua. Estalduraren igortzea.....	7
10. Artikulua. Beka- erregimena.....	7
11. Artikulua. Protokoloari dagokion ikasleen Harrerarako Zerbitzuaz....	7
12. Artikulua. Xedapen Iragankorrak	9
13. Artikulua. Xedapen Gehigarri Bakarra	9
ERANSKINA	10

1. ARTIKULUA. Arauzko oinarriak.

1.1. *Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak presondegietan diren pertsonen buruz osatu duen protokoloak (aurrerantzean Protokoloa) honako arau-bloke hauetan du oinarria:*

- a) Arautegi eta legeria orokorra
 - Euskal unibertsitate-sistema arautzen duen legea, otsailaren 25eko 3/2004 legea.
 - Estatuko legeria orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegokoa, *Protokolo* honen edukiari dagokionean
 - Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak: proiektua.
 - Indarreko sarrerarako arautegia, urriaren 22ko 1640/1999 Errege Dekretuan eta ekainaren 2ko 990/2000 Errege Dekretuan oinarrituriko jarraibideak dauzkalarik.
 - Ekainaren 1267/1994 Errege Dekretua abiapuntu harturik, *beste unibertsitate espainiarretan eginiko ikasketak baliokidetzeko arautegiaren garapena* eta, otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuan oinarrituz, *atzerriko goi mailako hezkuntz ikastegietan eginiko ikasketak baliokidetzeko arautegiaren garapena*.
 - *Izaera orokorreko bekak* arautzen dituen EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzarako Sailaren ekainaren 25eko 3260/2004 erabakia.
- b) *Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak ukitzen dituzten oinarritzko arauen barruan, ondoko hauek dira gobernu-kontseiluak edo gizarte-kontseiluak onarturikoak:*
 - *Lehenengo eta bigarren zikloetako irakasketak gestionatzeko arautegia*, indarrean dena 2004-2005 ikasturterako eta gobernu-kontseiluak (2004-02-25) onarturikoa.
 - Gizarte-kontseiluak (1993-07-08) onarturiko Irauteko arautegia.
- c) UHUNek indarrean duen Presondegietarako unibertsitate-ikasketen programa (2004-2005eko deialdia), bai eta, eskaintzen dituen ikasketen dagokienean, aipatu unibertsitateak onartu dituen arautegi espezifikoak ere.

1.2. Honako Protokolo honek, hala balegokio, egokitu beharra izanen du:

- Aipatu diren arautegiek gerora izan dezaketen aldaketak aintzat harturik.
- Bestelako erakunde eskudunek, hala nola, Presondegietarako Zuzendaritza Nagusiak eta Espainiar Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak ezar litzaketen balizko erabakiek eraginiko arau-markora.
- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Presondegietarako Zuzendaritza Nagusiarekin edo estatuko beste erakundeekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin edo beste autonomi erkidegoren batekin ezar litzakeen erabaki espezifikoetara.
- UPV/EHUren eta unibertsitate honetako ikaslerik duten espainiar estatutik kanpoko presondegiak administratzen dituzten erakunde publikoen artean lor litezkeen bestelako akordioetara.

2. ARTIKULUA. Protokoloaren onuradunak.

2.1. Protokolo honen babesean, UPV/EHU n matrikula egin ahal izateko administrazioaren arloan eskaturiko betebeharrak beteko lituzketen pertsonak jar daitezke, aipaturiko egoera berezian daudelarik.

3. ARTIKULUA. Titulazioen eskaintza.

3.1. Gobernu-kontseiluak titulazioen eskaintza onartu beharko du, beroriek eskaintzen dituzten unibertsitate-ikastegiekin kontsulta egin ostean. Eskaintza hori Protokolo honi atxekiko zaio gehigarri bezala:

a) UHUNek gaztelaniaz irakatsita, UPV/EHUK euskaraz ere irakasten dituen titulazioen euskarazko eskaintza barne izanen du.

b) UHUNek eskaini ez eta UPV/EHUK, honako artikulua honen irizpideekin bat etorrita, eskaini ahal izango diren titulazioak, euskaraz zein gaztelaniaz barne izango ditu.

c) Eskaintzak, halaber, *Protokoloari* atxikitako ikasle guztiak ukituko ditu, ikasketak atzerrian kokaturiko presondegietan egiten badituzte.

d) Eskainiko den titulazio guztietan esplizituko adieraziko da ikasketak protokoloaren barruan «amaitzeko» aukerarik dagoen edo ikasketa horiek «hasteko» aukera besterik ez dagoen, beroriek presondegi-erregimenean amaitu beharko direlarik.

e) *Protokolo* honetan eskainita, titulazioek praktiken portzentaia aski garrantzitsua dutenean, beste era bateko egokitzapen pedagogikorik ez dutela, hauetan matrikula egin nahi duten ikasleek kontutan hartu beharko dute aipatutako praktikak eta hauei dagozkien kredituak bete ahal izateko, praktikak burutzeko aukera eskaintzen duen guneren batera joan beharko dutela, presondegietak legeriak ezartzen dituen baimenez baliaturik.

f) Ikastegi batean baino gehiagotan eskaintzen diren titulazioei eta espezialitateei dagokienez, unibertsitate-ikastegi bakarrari esleituko zaio irakaskuntza-era hau.

3.2 Gobernu-kontseiluak doktorego-tituluen eta bestelako berezko tituluen eskaintza onetsiko du, aldezturik sailai, lehenengoen kasuan, eta sail edo ikastegi edo bi hauei, bigarrenen kasuan, kontsulta egin ostean, baldin eta protokolo honi loturiko ikasleen egoera aintzat harturik bideragarri erizten bazaie eta tituluok lortu ahal izateko, presondegian ikasteko eta lan egiteko materiala jasoko direlako bermea ematen delarik

4. ARTIKULUA. Gradu eta Graduondora sartzeko betebeharrak.

4.1. Plaza-erreserbak, aukeren kopurua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, literalki, UPV/EHUKo ikasleentzako oinarritzko arauak arautuko dituzte.

4.2. Izena emateko dokumentazioa aurkezteko epeak eta tokiak gainerako ikasleentzat jarritako berberak izanen dira. Aurkezpenera bera pertsona interesatuak zuzenean egin ahal izango du, eta kasu honetan dokumentazioa epean eta data egokian jaso delako ziurtapena bermatuko da, edo ikaslearen inguruko beste edozein pertsonaren bidez.

- 4.3. Izena eman eta onarpenaren baieztapena hirugarren pertsona baten bidez edo telegrama, fax edo posta ziurtatuaren bidez egin beharko da eta noralekuan deialdi bakoitzean (ekain, uztailean) izen ematea baieztatzeako aurreikusitako azken data baino lehen jaso beharko dira.
- 4.4. Matrikulatu beharreko irakasgai-kopuru gutxienekoa irakasgai bat izango da.
- 4.5. Matrikula egiteko epea indarreango araudiak ezarritakoa izango da. Matrikularen ordaintzea gainerako ikasleek darabilten modu berean burutuko da eta, hala balegokio, protokolo honetan parte hartzen duten ikasleentzako beka-erregimenean ezarriko den moduan.
- 4.6. Nolanahi ere, protokolo honi adskribituriko ikasleek matrikularen baliogabetzea edo aldatzea eskatu ahal izango dute urte bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen, eskaera hau justifikatu beharrik gabe. Matrikula aldatzeko eskaria titulazioari berari dagokionean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak izen ematea plaza hutsik duten titulazioetan bermatu ahal izango du soil-soilik.
- 4.7. Sarbidearen tramitazioa eta, behar denean, unibertsitate-ikasketak hasita dituzten ikasleen kasuan, espediente leku aldatzeko tramitazioa, hitzez hitz indarreko arauekin bat eginik burutuko da.

5. ARTIKULUA. Ikasketa desberdinak aldi berean egitea.

- 5.1. Ikasketa desberdinak aldi berean egiteko aukera, arautegi nagusiak aztertuko ditu, egin gura diren ikasketa berriak protokolo honi adskribituriko titulazioen eskaintzaren barruan egotea besterik eskatzen ez delarik.

6. ARTIKULUA. Lehenengo mailatik gorako mailetan matrikulatzea.

- 6.1 Matrikula egiteko epea irailaren bigarren hamabostaldia izango da eta zuzenean egingo da legokiokkeen unibertsitate-ikastegiko idazkaritzan. Matrikularen ordaintzea gaineko ikasleei ezarritako baldintza berberetan egingo da eta, hala balegokio, protokolo honen beka-erregimenean ezarriko denaren arabera.
- 6.2 Nolanahi ere, ikasle presoak matrikularen baliogabetzea edo aldatzea eskatu ahal izango dute urte bakoitzeko abenduaren 10a baino lehen, eskaera hau justifikatu edo aldatzeko beharrik gabe.
- 6.3 Matrikulatu ahal den kreditu-kopuru gehienekoa kasuan kasu ezarritakoa izango da. Matrikulatu beharreko irakasgai-kopuru gutxienekoa irakasgai bat izango da.

7. ARTIKULUA. Irakaskuntz plangintza eta ebaluazioa.

- 7.1 Titulazio bakoitzean, presondegietakoa ikasleek talde espezifikoa eta bereizia osatuko dute matrikula, zerrendak osatu eta bestelako administrazio-tramiteei

dagozkienean. Atzerriko presondegietan sarturiko ikaslerik egonez gero, hauekin talde espezifiko ezberdina eratuko da.

- 7.2 Honako *protokolo* honi adskribituriko irakasgaien ardura lukeen sailak oro irakasgai bakoitzaren egokitzapen akademiko eta pedagogikoa egin beharko du eta egokitzapena justifikatu, egokitzapenak xedaturik lituzkeen helburuak, programa edo balioespen-sistema aldatuko balira. Egokitzapen hau erabilgarri egongo da, gainerako irakaskuntz eskaintza gertatzen deneko data eta baldintzetan.
- 7.3 Sail bakoitzean epaimahai bana izango da ebaluazioak egin ditzan. Sailak besterik adierazten ez badu, epaimahai hori ikastegiak *salbuespenezko 5. eta 6. deialdietarako* izendatutako bera izanen da. Sailak zeregin honetarako epaimahai espezifiko izendatzeko aukera hartuko balu, arestiko horiek hautatu eta ezeztatze arau, data eta prozedura berberak errespetatu beharko dira. Epaimahai honi ere egokituko zaio, bere ikastegiak edo -hala balegokio- ikasleen errektoreordetzak egin beharreko eskariaren bidez, ikasteko materiala eta informazioa presondegietara igorri eta jasotzeko baldintzak eta datak bermatzea.
- 7.4 Examinak uztailaren 15a eta irailaren 15a baino lehen burutuko dira. Karrera amaitzeko irakasgai-kopuru gehienezkoa luketen ikasleentzako examina ezohikoak martxoaren lehenengo hamabostaldian egingo dira.
- 7.5 Saio bakoitzean, gehien delarik, bi examina egin ahal izango dira. Nolanahi ere, bermatu beharko dira matrikulaturiko irakasgai guztietako examinak egin ahal izateko denbora-baldintzak.
- 7.6 Presondegietakoa examinak UPV/EHUko irakasleen kontrol akademikoaren kontrol eta tutelaren menpe egingo dira, irakaslea bertan delarik. Liratekeen egoera ezberdinen arabera, ukituriko unibertsitateko fakultate eta eskoletako zuzendaritzei egoki iritzitako kontsultak egin ostean eta presondegietakoa zuzendaritza nagusiarekin batera egutegiak finkatu eta behar diren baimenak adostu eta gero, ikasleen errektoreordetzak izendatuko du presondegi bakoitzera joan behar duen irakaslea eta bermatuko du, aldi berean, jarri beharreko examinak eta hauek garatzeko forma eta denborari buruzko arauak bere esku egongo direla. Examinok postazal prezintatua emango dira eta proba hasi aurretik irekiko dira, ez beste inoiz. Ikasle bat baino gehiago balira eta examinak hala eskatuko balu (ahoz diktaturik eskaini ezin denean), postazalaren barruan kopia-kopuru nahikoa eta examina egiteko jarraibiderik zehatzak egon beharko dira.
- 7.7 Irakasgairen bat ikasleak eginiko lanen bidez balioetsiko balitz, bestelako probarik egin gabe, UPV/EHUko irakasleekin azken examina egiten duenean, saio hori izango du, hain zuzen, lan horiek, irakasle horren bidez, igorri ahal izateko azken aukera.

8. ARTIKULUA. Iraute arauak.

- 8.1 *Protokolo* honen babesean harturiko pertsonentzako deialdien erregimenean iraileko deialdia eta karrera-amaierako examina ezohikoena besterik ez da konputatuko, baldin eta ikasleak deialdi hauetara aurkezten badira.

- 8.2 Matrikula daitekeen irakasgai-kopuru txikiena batekoa izanik, ez da ezarri ikasturte batean gainditu beharreko gutxieneko irakasgai-kopururik, matrikula berriro egin ahal izateko.
- 8.3 25 urtetatik gorakoentzako sarrera-ikastaroan, ez da deialdi-mugarik ezarri.

9. ARTIKULUA. Estalduraren igortzea.

- 9.1. Oinarrizko arauen artean, UPV/EHUko gainerako ikasleen kasuan, aukera askea, egokitzapena eta baliokidetzak, kredituen aitorten eta transferentzia, eta ezohiko deialdia arautzen dituzten xedapenak hitzez hitz aplikatuko dira.

10. ARTIKULUA. Beka-erregimena.

- 10.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailak unibertsitateko ikasketak egiteko izaera orokorreko beken inguruan indarrean duen arautegia aplikatuko da.
- 10.2. *Akademi zerbitzuen prezio publikoak salbuestea* mantendu ahal izateko irakasgai-kopuru gutxienekoari dagokionean, hiru irakasgai gainditu beharko dira matrikula egin deneko azken bi ikasturteetan.
- 10.3. 4.4 eta 6.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorrira, ezin izango zaio bekari-izateari denborazko mugarik jarri, bai material didaktikorako laguntzari bai konpentsazio-laguntzari dagokienean.
- 10.4. *Material didaktikorako laguntzaren* gestioa, ikaslearen ikasketei dagokien unibertsitate-ikastegiko administrazioak burutuko du.

11. ARTIKULUA. Protokoloari dagokion ikasleen Harrerarako Zerbitzuaz.

- 11.1. Zerbitzu honetako pertsona arduraduna unibertsitate-orientaziorako teknikari bat izango da. Unitate hau ikasleen errektoreordetzaren menpe egongo da eta errektoreordetza honen egoitzan kokatuko da.
- 11.2. Unibertsitate-orientaziorako zerbitzuko (UOZ) koordinatzailearekiko lankidetzaz, honako betekizun hauek izango ditu:
- a) Matrikulaturiko ikasleekiko harremanak, ohizko postaren bidez.
- b) Ikaslerik matrikulaturik duten presondegi guztietako hezkuntza-koordinatzaileekiko harremana, bai administrazio-gestioetarako bai koordinatzaileek eta ikasleek berek lituzketen zalantzak argitzeko.

c) Ikasle presoen familiekiko harremana, akademi bizitzaren inguruko alderdi guztiak ebatzi eta konpontzeko bidean: titulazioen inguruko informazioa eta orientazioa eman, izen ematea, bekak tramitatu eta abar.

d) Ikasle matrikulaturik duen ikastegi bakoitzeko idazkaritzako pertsonal laguntzaile arduradunarekiko koordinazio etengabea, akademi alderdiak edo/eta administrazioakoak gestionatzeko.

e) Sailei orientazio puntual eta espezifikoa eskaini ikasturtean zehar, akademi arazo eta gaien inguruan.

f) Presondegietako zuzendaritza nagusiarekiko hartu-emanak, karteletarako sarrera-baimenak gestionatzeko.

11.3. Presondegietan ikasle matrikulaturik duten unibertsitate-ikastegi guztietan, administratzaileak idazkaritzako administrazio-laguntzaile bati esleituko dizkio artikulua honetan agerturiko zereginak. Ikasle matrikulatuak 20tik gorakoak direnean, pertsona baten (idazkaritzako administrazio-laguntzaile baten) astean lau ordutako arduraldia beharko da.

11.4. Unibertsitate-ikastegiko akademi antolakuntzaren arloko pertsona arduradunarekiko lankidetzaz, honako betekizun hauek izango ditu:

a) Harreman etengabea mantenduko du zerbitzuko teknikariarekin, informazioa eta lana behar bezala bideratzeko.

b) Behar besteko aurrekotasunaz, teknikariarekin batera urteko egutegia osatuko du, lan egin beharreko arlo ezberdinak, informazioa, matrikula eta, bertan sartuz.

c) Zeinek bere unibertsitate-ikastegian ikasketak egin nahi dituen ikasleen matrikula egingo du.

d) Jarraipena egingo du, ikasturte osoan zehar.

e) Bere unibertsitate-ikastegiko sailari jakinaraziko dio bertako irakasgaietan matrikulatutako ikasleen berri.

f) Sailari eskatuko dizkio irakasgai horietarako programa, lan-materiala (apunteak, artikulak, liburuak eta beste) eta gai horietarako betebeharrak.

g) Materiala fotokopiatu eta **presondegietako ikasleek harrerarako zerbitzuari** igorriko dio.

h) Examinak:

– Sailari eskatuko dizkio examinak eta zerbitzuari helaraziko. Examinon hartzea gain hartu eta jarraipena egingo du kalifikazioak aktetan agertu arte.

– Zerbitzuari justifikagiri bat igorriko dio ikasleek lorturiko emaitzak eta beste bertan agerita.

12. ARTIKULUA. XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra.– Lehenengo eta bigarren zikloetako titulazioetan «lehenengo matrikulazioak» egin ahal izateko, mantenduko da UPV/EHUk 2002-2003 ikasturterako egindako eskaintza bera. Zerbitzu publikoa ahalik eta eraginkorren izan dadin, zenbait ikastegitan irakasten diren titulazioak horietako batean besterik ez da eskainiko.

Bigarren xedapen iragankorra.– Honako Protokolo honetan ezarritako eskumen-banaketarekin bat eginik, egin beharreko akademi egokitzapena egingo da –kasuan kasu, presondegian egin daitezkeen irakasgaiak eta kredituak definituz–, 2002-2003 ikasturtean, kartzelara sartu baino lehenago goi mailako ikasketetan ari ziren ikasleek ikasten segitu ahal izan dezaten, ikasketak 3. artikuluan eskainitakoen artean egon ez arren.

Hirugarren xedapen iragankorra.– 2002-2003 ikasturtean unibertsitateko ikasketak «lehengo planen» bidez egiten ari ziren ikasleei, baldin eta ikasketa haiei zegokien komenioa baliogabetu ondoren, zegozkien examinak egin ezin bazituzten, egingen duten matrikula berrian aitortu egingo zaie aipatutako ikasturte hartan zegokien statusa.

Laugarren xedapen iragankorra.– Honako Protokolo hau indarrean sartuko denean, bertan ezarritako matrikulazio-epeak iragan balira, ikasleen errektoreordetzak, akademi antolakuntzarako errektoreordetzari kontsulta egin ostean, matrikulazio eta examina-daten egutegi berria ezarriko du aurtengo ikasturterako.

13. ARTIKULUA. XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

13.1. *Protokolo* hau osatzen duten xedapenak indarrean eta, arau moduan, eraginkorrak izanen zaizkie, kasuan kasu egin beharko liratekeen egokitzapenak egokitzapen, salbuespenezko egoera pertsonalak direla medio (jardun profesional edo egoera familiarretik at), hots, gaixotasuna edo ezintasuna, istripua edo ospitaleratzea, besteak beste, ikasketak UPV/EHUk modu presentzialean aldi baterako edo betiko burutu ezinean egonen diren ikasleei, ikasleen errektoreordetzak eskainiko dien harrerari dagokionean.

Beronen arautegia, hala balegokio, garatu arte, ikasleen errektoreordeari egokituko zaizkio *protokolo* hau bere babesa eskatzen duten ikasleei aplikatzeak lekartzakeen baldintzak analizatzea.

ERANSKINA:
2025/2026 IKASTURTERAKO GRADUKO IKASKETEN ESKAINTZA

Ikastegia	Gradua	Bukatzeko Aukera	Campusa
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	Ekonomia	Bai	Bizkaia
	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza	Bai	Gipuzkoa
	Marketina	Bai	Bizkaia
	Negozioen kudeaketa	Bai	
	Zerga Sistema eta Administrazio Publikoa	(0)*	
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	Arkitektura Teknikoa	(0)	Gipuzkoa
	Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza	(0)	
	Ingeniaritza Elektrikoa	(0)	
	Ingeniaritza Mekanikoa	(0)	
	Ingeniaritza Zibila	(0)	
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa	Bai	Bizkaia
	Soziologia	Bai	
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Filosofia	Bai	Gipuzkoa
	Gizarte Antropologia	Bai	
	Gizarte Hezkuntza	Bai	
	Haur Hezkuntza	(1)	
	Lehen Hezkuntza	(1)	
	Pedagogia	Bai	
Informatika Fakultatea	Adimen Artifiziala	(0)	Gipuzkoa
	Informatika Ingeniaritza	Bai	
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	Gizarte Langintza	Bai	Araba
	Lan Harremanak eta Giza Baliabideak	Bai	Bizkaia
Letren Fakultatea	Artearen Historia	Bai	Araba
	Euskal Ikasketak	Bai	
	Filologia	Bai	
	Geografia eta Lurralde Antolakuntza	Bai	
	Historia	Bai	
	Ingeles Ikasketak	Bai	
Psikologia Fakultatea	Psikologia	(2)	Gipuzkoa
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Matematika	(0)	Bizkaia
Zuzenbide Fakultatea	Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza + Zuzenbidea	(3)	Gipuzkoa
	Kriminologia	(4)	
	Zuzenbidea	(4)	

2025/2026 IKASTURTERAKO GRADUONDOKO IKASKETEN ESKAINTZA

Ikastegia	Graduondokoa	Bukatzeko Aukera	Campusa
Letren Fakultatea	Master ofiziala: Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia	Bai	Araba
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Master ofiziala: Subiranotasuna Europako herrietan	Bai	Bizkaia
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	Master ofiziala: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza	Bai	Gipuzkoa

(0) Irakasgai batzuk ezin dira egin.

(0)* Irakasgai batzuk ezin dira. 2024/2025 1. mailatik gradua eskaini zen azken ikasturtea izan zen. Hortik aurrera azterketak mantenduko dira, baina gradualki desagertuko da Gradua. Ondoren, Master bihurtuko da.

(1) Practicuma ezin da egin. Gradu Amaierako Lana egin ahal da baina defendatu ez.

(2) Irakasgai batzuk ezin dira egin (praktikak barne) ezta Gradu Amaierako Lana ere.

(3) Praktikak eta Zuzenbideko Gradu Amaierako Lana ezin dira egin. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu Amaierako Lana egitea posible da.

(4) Praktikak eta Gradu Amaierako Lana ezin dira egin.

Oharra: Ikasketak bukatzeko aukera denean, bermatzen da beharrezko kredituak egitea, baina egin ezin diren irakasgaiak egon daitezke.